

#talentueplazara

oinarriak

2-10 urte bitarteko umeentzako ikuskizun bat aurkeztu beharko dute lehiaketan parte hartzen duten talde edo norbanakoek.

1. Talde edo norbanakoek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. 16 urtetik gorakoak izan beharko dira guztiak.
2. Ez da inolako mugarik jarriko estilo eta formatuetan. Edozein diziplina onartuko da; ipuin-kontakteta, antzerkia, musika emanaldia, umorea...
3. Ikuskizunak euskara hutsean izan beharko dira ezinbestean.
4. 60 minutuko saiotxo osatu beharko da (45 min - 90 min tartean) eta Plateruena Kafe Antzokiko eszenatokian aurkezteko balioko du.
5. Ikuskizuna inoiz Plateruena Kafe Antzokian plazaratu gabekoa izan beharko da.
6. Ez da onartuko edozein oinarritzko eskubide urratzen duen ikuskizunik.
7. Hautaketa-prozesua:
 - a. Epaimahaiak egutegian zehazten den aukeraketa prozesua jarraituko du.
 - b. Lan guztietatik 6 aukeratuko dira eta 2013ko azarotik 2014ko apirilera bitartean lan horiek Plateruena Kafe Antzokian aurkeztuko dira zuzenean.
 - c. Aukeratutako lan bakoitzari 200 €ko saria emango zaio emanalditxoagatik, Plateruena Kafe antzokian aurkeztuko du lana eta Berbarok horren zabalkundea egiteko konpromisoa hartzen du.
 - d. Plateruengan aurkeztutako 6 lanetatik, entzuleen saria irabaziko duen ikuskizun bat aukeratuko da eta horrek 100 €ko sari gehigarria izango du.
 - e. Hurrengoak izango da egutegia:
 - Izena emateko epea: uztailaren 12ra arte. Beharrezkoa: taldearen izena, partaideen izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta 10€ko fiantza bat jarri beharko da partaidetza ziurtatzeko.
 - Aurkeztuko den ikuskizunaren informazioa entregatzeko epea: irailaren 20ra arte. Beharrezkoa: datu teknikoak, hartzaileen adin tarte, sinopsia, formatua...
 - Informazio horretan oinarrituta, lehenengo aukeraketa egingo da.
 - Irailaren 24tik 27ra bitartean, aukeratutako casting-ak egingo dira.
 - Irailaren 30ean sei saridunak aukeratuko dira.
 - 2013ko azarotik 2014ko apirilera bitartean, Plateruengan saridunen emanaldiak egingo dira (hileko lehenengo igandeetan).
 - Apirilaren 16an entzuleen sariduna aukeratuko da.
8. Epaimahaiak hala baderitzo, sarietako bat hutsik gera daiteke.
9. Lehiaketara aurkeztutako lanen autoretzari dagokion zalantzarik edo gatazkarik sortuko balitz, Berbaro Elkarteak ez luke bere gain hartuko inolako ardurarik. Liskar hori aldean artean konpondu beharko litzateke.
10. Berbaro Elkartearen talentu lehiaketan parte hartzeak arau hauek guztiak onartzea dakar.
11. Berbaro Elkarteak behar bezala jakinaraziko du oinarri hauei dagokien aldaketa oro. Antolakuntzak beharrezko ikusten dituen aldaketak egiteko eta arazo edo zalantzarik egotekotan erabakitzeke ahalmena izango du.